



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/04/30

NIF: P3105000H

Espedientea 109952M

2024KO APIRILAREN 25eko OHIKO OSOKO BILKURA
SESIÓN PLENARIA ORDINARIA DE 25 DE ABRIL DE 2024

Baztango Udaletzeko bilkura aretoan, 2024ko apirilaren 25ean, 19:00etan, Baztango Udala Osoko Bilkuran bildu da, ohiko bileran, Fernando Anbustegi Goñi alkate-udalburu jauna buru dela, eta zinegotzi hauek etorri dira: Mariano Iribarren Irigoyen, Jose Luis Retegi Iturbide, Alaitz Arretxea Etxeberria eta Gorka Urtasun Saldias EH-BILDU taldekoak; Florentino Goñi Tellechea, Iñigo Iturralde Eliceche eta Joseba Moreno Videgain ZUREKIN-CONTIGO BAZTAN taldekoak; Pello Sarratea Sanzberro eta Andoni Irigoyen Maritorea BAZTANGO INDEPENDIENTEAK / INDEPENDIENTES DE BAZTAN taldekoak; Anastasio Nagore Garralda UPN taldekoa; Lander Mattin Santamaria Alcocer GEROA BAI taldekoa.

Ez da bertaratu: Lorea Lizarreta Insausti

Idazkari lanetan Iulen Urbiola Loyarte jauna aritua da.

Alkateak hasiera eman dio bilkurari.

1.- 2024/03/26KO OHIKO BILKURARI DAGOKION AKTAREN ONESPENA.

2024/03/26ko ohiko osoko bilkuraren akta aho batez berretsi da.

2.- ARRAIOZKO 8. POLIGONOKO 95 LUR-ZATIAREN AURREAN DAGOEN LURSAILA SOBERAKINTZAT DEKLARATZEA ETA BESTERENGARRITZAT JOTZEA.

2024/02/22an, Baztango Udaleko osoko bilkurak Arraiozko (Urrutia karrika 13) 8. poligonoko 95. partzelari erantsitako 57,46 m²-ko kalifikazio juridikoa aldatzea erabaki zuen, soberako partzela deklaratzeko. Alegaziorik aurkeztu gabe jendaurrean egon ondoren, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailearen 2ko 6/1990 Foru Legean eta urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuan xedatutakoari jarraituz, Udaltzatuko kideek aipatutako gaiak beren iritzia eman ondotik (bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildua), honako hau erabaki dute, aho batez:

En la sala de sesiones del Ayuntamiento del Valle de Baztan, siendo las 19:00 horas del día 25 de abril de 2024, se reúne, en sesión ordinaria el Pleno Municipal, presidido por el alcalde-presidente Fernando Anbustegi Goñi y con la asistencia de los siguientes concejales: Mariano Iribarren Irigoyen, José Luis Retegi Iturbide, Alaitz Arretxea Etxeberria y Gorka Urtasun Saldias por el grupo EH-BILDU; Florentino Goñi Tellechea, Iñigo Iturralde Eliceche, Joseba Moreno Videgain por el grupo ZUREKIN-CONTIGO BAZTAN; Pello Sarratea Sanzberro y Andoni Irigoyen Maritorea por el grupo BAZTANGO INDEPENDIENTEAK-INDEPENDIENTES DE BAZTAN; Anastasio Nagore Garralda por el grupo UPN; Lander Mattin Santamaria Alcocer, por el grupo GEROA BAI.

No asiste: Lorea Lizarreta Insausti

Actúa como secretario D. Iulen Urbiola Loyarte.

El alcalde da comienzo a la sesión.

1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ORDINARIA DE 26/03/2024.

El acta de la sesión ordinaria de 26/03/2024 es ratificada por unanimidad.

2.- DECLARACIÓN COMO PARCELA SOBANTE Y DECLARACIÓN DE ALIENABILIDAD DE LA PARCELA SITA EN FRENTE DE LA PARCELA 95 DEL POLÍGONO 8 DE ARRAIOZ.

Con fecha 22/02/2024 el pleno del ayuntamiento de Baztan aprobó alterar la calificación jurídica de 57,46 m² anexos a la parcela 95 del polígono 8 de Arraioz, Urrutia karrika 13, para su declaración como parcela sobrante. Pasado el tiempo de exposición pública sin que se hayan registrado alegaciones y siguiendo lo dispuesto por la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la administración local de Navarra y del Decreto Foral 280/1990, de 18 de octubre, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión, el Pleno por unanimidad de los presentes acuerda:





SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/04/30

SINATZAILEA

Baztango Udal Idazkarria
JULEN URBIOLA LOYARTE
2024/05/02

1.- Behin betiko onartzea Urrutia karrika 13ko 8. poligonoko 95. partzelari erantsitako 57,46 m²-ko kalifikazio juridikoa aldatzea.

2.- Lehenengo xedapenean deskribatutako lursailaren lursail soberakintzat deklaratzeko onartzea: 57,46 m², Arraiozko 8. poligonoko 95. partzelaren eranskinak; Urrutia karrika 13, ondare-ondasuntzat kalifikatua, urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 10. eta 12. artikuluen arabera (280/1990 Foru Dekretua, Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena).

3.- Arraiozko (Urrutia karrika 13) 8. poligonoko 95. partzelari erantsitako 57,46 m²-en besterengarritasuna deklaratzeko, mugakideari zuzenean besterendu ahal izateko.

4.- Espedientea jendaurrean paratu beharko da 15 eguneko epean, udaletxeko iragarki-oholean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

5.- 15 eguneko epea pasatuta truke-prozedurari **hasiera ematea**, modu eta baldintza hauetan:

a) Eragiketa eskritura publikoan egin beharko da. Eskritura horretan jasoko da onuradunak onartu duela, eta Jabetza Erregistroan inskribatu beharko da.

b) Formalizazio horri dagozkion gastuak onuradunak ordainduko ditu.

6.- Alkateari ahalmena ematea erabakitakoa betearazteko beharrezkoak diren agiriak sina ditzan.

3.- XEHETASUN AZTERLANA ELIZONDOKO 16. POLIGONOKO 74, 75 ETA 76 LUR-ZATIETAN, GILTXAURDIKO 40, 42 ETA 48KO JABEKIDEEK SUSTATUTAKOAK. BEHIN BETIKO ONESPENA.

2024/02/22an Giltxaurdi 40, 42 eta 48 jabekideek sustatutako Giltxaurdi kaleko 40., 42. eta 48. zenbakietako Elizondoko 16. poligonoko 74., 75. eta 76. partzelen xehetasun-azterlana onartu zen hasera batean. Bertan igogailua jarri nahi zaie, eraikin horietan dauden etxebizitzetarako irisgarritasuna bermatzeko. arkitekto aholkulariaren 2024/01/29ko txostenaren arabera (2401i035erreferentzia), eta jendaurrean egon den epean ez dela alegaziorik aurkeztu, Udaltzazak aho batez honakoa **erabaki du**:

1.- **Behin betikoz onestea** Giltxaurdi 40, 42 eta 48 jabekideek sustatutako Giltxaurdi kaleko 40., 42. eta 48. zenbakietako Elizondoko 16. poligonoko 74., 75. eta 76. partzelen xehetasun-

1.- Aprobare definitivamente la alteración de la calificación jurídica de 57,46 m² anexos a la parcela 95 del polígono 8 de Arraioz, Urrutia karrika 13.

2.- Aprobare la declaración como parcela sobrante del terreno descrito en el dispositivo primero: 57,46 m² anexos a la parcela 95 del polígono 8 de Arraioz, Urrutia karrika 13 calificado como bien patrimonial de conformidad con los artículos 10 y 12 del Decreto Foral 280/1990, de 18 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las entidades locales de Navarra.

3.- Declarar la alienabilidad de los 57,46 m² anexos a la parcela 95 del polígono 8 de Arraioz, Urrutia karrika 13, a fin de poder enajenarlo de forma directa al colindante.

4.- Someter el expediente a información pública durante el plazo de 15 días, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en el Boletín Oficial de Navarra.

5.- Transcurrido el plazo de 15 días iniciar la enajenación directa de la parcela sobrante en los siguientes términos y condiciones:

a) La operación deberá formalizarse en escritura pública.

b) Los gastos correspondientes a esta formalización serán por cuenta del beneficiario.

6.- Facultar al alcalde para que suscriba los documentos que sean necesarios en orden a la ejecución de lo acordado.

3.- ESTUDIO DE DETALLE EN LAS PARCELAS 74, 75 Y 76 DEL POLÍGONO 16 DE ELIZONDO, PROMOVIDO POR LAS COMUNIDADES DE PROPIETARIOS DE LOS NÚMEROS 40, 42 Y 48 DE LA CALLE GILTXAURDI. APROBACIÓN DEFINITIVA.

Con fecha 22/02/2024 fue aprobado con carácter inicial el estudio de detalle de las parcelas 74, 75 y 76 del polígono 16 de Elizondo, ubicadas en los nº 40, 42 y 48 de la calle Giltxaurdi, promovido por los Copropietarios Giltxaurdi 40, 42 y 48, mediante el que se quiere poder dotarles de ascensor con objeto de garantizar la accesibilidad a las viviendas existentes en dichos inmueble, según el informe del arquitecto asesor municipal de 29/01/2024, ref. 2401i035, y a la vista de que en el plazo de exposición pública no se han presentado alegaciones, el Pleno por unanimidad de los presentes acuerda:

1.- Aprobare definitivamente el estudio de detalle de las parcelas 74, 75 y 76 del polígono 16 de





SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/04/30

NIF: P3105000H

Espedientea 109952M

azterlana. Bertan igogailua jarri nahi zaie, eraikin horietan dauden etxebizitzetarako irisgarritasuna bermatzeko. Hori guziaz, Baztango Udaleko arkitekto aholkulariaren txostenaren arabera (2404i018 erreferentzia) eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2.- Xehetasun azterlanaren behin betiko onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean **argitaratuko da**, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 79. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

3.- Behin betiko onespeneri buruzko erabakia Nafarroako Gobernuak lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duen Departamentuari **jakinaraziko zaio** 10 eguneko epean.

4.- Akordio hau interesdunei **jakinaraztea**, haren berri izan dezaten eta behar diren ondorioetarako.

4.- ZALDUBIAN BORONDATEZKO BIRPARTZELAZIO-PROIEKTUAREN ALDAKETA 14. POLIGONOKO 496, 519, 537 ETA 258 LUR-ZATIETAN, ANGEL GOÑI MICHELENAK ETA ALICIA ARRAZTOA MENDICOAK SUSTATUTAKOA. BEHIN BETIKO ONESPENA.

2024/02/22an hasierako onarpena eman zitzaion Zaldubian (14. poligonoko 496., 519., 537. eta 258. partzelak) borondatezko birpartzelazio-proiektuaren aldatetari. Jendaurrean egon ondoren, ez da alegaziorik aurkeztu. Hirigintzako udal aholkulariaren txostena (2404i019) ikusirik, Udaltzatza aho batez **erabaki du**:

1.- **Behin betikoz onestea** Zaldubian (14. poligonoko 496., 519., 537. eta 258. partzelak) borondatezko birpartzelazio-proiektuaren aldaketa. Hori guztia, bat etorritik uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74. eta 152. artikuluetan xedatuarekin (legegintzako foru dekretu horren bidez onetsi zen Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina) eta Hirigintzako udal aholkulariaren txostenaren arabera (2404i019).

Elizondo, ubicadas en los nº 40, 42 y 48 de la calle Giltxaurdi promovido por los Copropietarios Giltxaurdi 40, 42 y 48, mediante el que se quiere poder dotarles de ascensor con objeto de garantizar la accesibilidad a las viviendas existentes en dichos inmueble. Todo ello, según el informe del arquitecto asesor del Ayuntamiento de Baztan, (referencia 2404i018) y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 74 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

2.- La aprobación definitiva del estudio de detalle se publicará en el Boletín Oficial de Navarra, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 79 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

3.- El acuerdo de aprobación definitiva se comunicará al Departamento competente en materia de ordenación del territorio y urbanismo del Gobierno de Navarra, en el plazo de 10 días.

4.- Notificar el presente acuerdo a cuantos puedan resultar interesados, para su conocimiento y efectos oportunos.

4.- MODIFICACIÓN DEL PROYECTO DE REPARCELACIÓN VOLUNTARIA EN ZALDUBIA, PARCELAS 496, 519, 537 Y 258 DEL POLÍGONO 14, PROMOVIDO POR ANGEL GOÑI MICHELENA Y ALICIA ARRAZTOA MENDICOA. APROBACIÓN DEFINITIVA.

Con fecha 22/02/2024 se aprobó inicialmente la modificación del proyecto de reparcelación voluntaria en Zaldubia, parcelas 496, 519, 537 Y 258 del polígono 14. Transcurrido el periodo de exposición pública no se han presentado alegaciones, Teniendo en cuenta el informe del técnico municipal en urbanismo (ref. 2404i019), el Pleno por unanimidad acuerda:

1.- Aprobar definitivamente la modificación del proyecto de reparcelación voluntaria en Zaldubia, parcelas 496, 519, 537 Y 258 del polígono 14. Todo ello de conformidad con lo dispuesto en los artículos 74 y 152 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo, y con sujeción al informe emitido por el técnico municipal en urbanismo (ref. 2404i019), cuya copia se adjunta.



SINATZAILEA

Baztango Udala Idazkarria
JULEN URBIOLA LOYARTE
2024/05/02

BAZTAN

2024/04/25eko OSOKO BILKURAKO AKTA - SEFYCU 60354

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.baztan.eus/>

9tik 3 orrialdea

Egiaztapen-aseguru kodea: 7DAA AARC F7AD 9E24 MVDN



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/04/30

SINATZAILEA

Baztango Udal Idazkaria
JULEN URBIOLA LOYARTE
2024/05/02

2.- Birpartzelazio behin betiko onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean **argitaratuko da**, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztai laren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua-ren 79. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

3.- Behin betiko onespeneri buruzko erabakia Nafarroako Gobernuko lurraldearen antolamenduari eta hirigintzaren arloan eskumena duen Departamentuari **jakinaraziko zaio** 10 eguneko epean.

4.- Akordio hau interesdunei **igortzea**, haren berri izan dezaten, horrek ekar ditzakeen ondorioekin.

5.- BAZTANGO EUSKARAREN I. PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEA.

Baztango Udalak 2024-2027 bitarteko Euskara Planaren erronka nagusiak irudiztatzeko hausnarketa eta eztabaida prozesu bat sustatu du. Aipatutako prozesuak egungo eta etorkizuneko helburuak marraztu eta euskararen normalizazioa bultzatzeko elkarlanerako eta koordinaziorako bideak paratu ditu. Prozesu horren ondorioz udalbatzari Baztango Euskararen I. Plan Estrategikoa aurkezten da bere onarpenerako.

Aurrekariak azalduz, arrazoiak eta ondorioak aurkeztuz, Udalbatzako kideek aipatutako gaiak beren iritzia eman ondoren, bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildua, eta honela laburbiltzen dena:

Anastasio Nagore, UPN: Abstenitu egingo da. Inposizio plan bat dela uste du, eta gaztelaniarekiko begiratu beharko litzatekeela. Ez daki zenbateraino diren egiazkoak batzordeak aurkeztutako datuak. Zalantza handiak ditu eta uste du euskara estutzea dela eta saiatzen ari dela gaztelania kentzen.

Fernando Anbustegi, alkatea: Bere eskubidea da abstentzioa ematea, baina Anastasiok aipatutakoa lotsa-emangarria eta errespetu falta iruditu zaio.

Iñigo Iturralde, Zurekin Baztan: Inposizioa da urteetan UPNk egin diena euskaldunei. Anastasioren iritzia errespetatzen du, baina ez du konpartitzen.

Anastasio Nagore, UPN: Iritzi bat eman nahi du, euskarari errespetu osoa emanaz, baina gaztelania ez dela hil behar uste du. Alkateari esandakoa errespetatzeko eskatu dio. Ez du euskarari buruzko polemikarik nahi.

2.- *La aprobación definitiva de la reparcelación se publicará en el Boletín Oficial de Navarra, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 79 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo.*

3.- *El acuerdo de aprobación definitiva se comunicará al Departamento competente en materia de ordenación del territorio y urbanismo del Gobierno de Navarra, en el plazo de 10 días.*

4.- *Notificar el presente acuerdo a cuantos puedan resultar interesados, para su conocimiento y efectos oportunos.*

5.- APROBACIÓN DEL I PLAN ESTRATÉGICO DEL EUSKERA DE BAZTAN.

El Ayuntamiento de Baztan ha promovido un proceso de reflexión y debate para ilustrar los principales retos del Plan de Euskera (2024-2027). Dicho proceso ha dibujado los objetivos actuales y futuros y establecido los cauces de colaboración y coordinación para impulsar la normalización del euskera. Como consecuencia de ese proceso se presenta al pleno del ayuntamiento para su aprobación el I Plan Estratégico del Euskera de Baztan

Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias de la misma, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión y que se resume en

Anastasio Nagore, UPN: Se abstendrá. Piensa que es un plan de imposición y habría que mirarlo con respecto al castellano. No sabe hasta qué punto son ciertos los datos que presentó la comisión. Tiene grandes dudas y cree que es un atosigamiento del euskera y que se intenta quitar el castellano.

Fernando Anbustegi, alcalde: Es su derecho abstenerse, pero lo dicho por Anastasio le parece una vergüenza y una falta de respeto.

Iñigo Iturralde, Zurekin Baztan: La imposición es lo que UPN ha hecho durante años a las personas vascas. Respeta la opinión de Anastasio, pero no la comparte.

Anastasio Nagore, UPN: Simplemente quiere dar una opinión, con todo el respeto al euskera, pero cree que no hay que matar el castellano. Al alcalde le pide que respete lo que ha dicho. No quiere una polémica con respecto al euskera.





SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/04/30

NIF: P3105000H

Espedientea 109952M



SINATZAILEA

Baztango Udal Idazkaria
JULEN URBIOLA LOYARTE
2024/05/02

Fernando Anbustegi, alkatea: Errespetagarria da bozka ematea, baina gehiegizkoa 2024. urtean erratea inposatu dela euskara, oraindik ezin denean %100ean euskaraz bizi, gaztelaniaz bai. Doike bere iritzia errespetatzen duela. Iritzi horrek bat egiten du UPNk historian zehar egin duenarekin, euskararen kontra jotzea behin eta berri.

Pello Sarratea, Baztango Independienteak: Galdetzen du zenbatean behin izanen den euskara batzordea.

Fernando Anbustegi, alkatea: Ekainean onartu zirelarik batzordeak aipatu ziren. Bilduko da euskarari buruzko gairen bat dagoenean osoko bilkuran.

Pello Sarratea, Baztango Independienteak: Dirulaguntzak hartzeko klub gehienek aipatzen dute euskaraz egiten dutela osotasunean eta ez da horrela. Planaren alde egingo dute, baina kezkatzen die batzuetan, behartzen denean alde egin beharrean kontra egiten duela.

Fernando Anbustegi, alkatea: Batzordean aipatu zen klubek ez dutela euskaraz osotasunean egiten, beraz ez du uste behartzen denik, bertenaz dirurik gabe geldituko ziren.

Alkateak bozkatzera deitzen du. Udalbatzak aldeko 11 botorekin (EH-Bildu, Zurekin-Contigo Baztan, Baztango Independienteak-Independientes de Baztan eta Geroa Bai) eta abstentzio 1ekin (UPN) **erabaki du:**

- 1.- Baztango Euskararen I. Plan Estrategikoa **onartzea.**
- 2.- Erabaki hau eta Baztango Euskararen I. Plan Estrategikoa Baztango Udalaren web orrian **argitaratzea.**

6.- ERABAKIA, NAFARROAKO GOBERNUAK 2024KO URTARRILAREN 17AN HARTUA, "ARTESIAGAKO (ESTERIBAR-BAZTAN, NAFARROA) MAGNESITAK USTIATZEKO PROIEKTUA" UDALAZ GAINDIKO PROIEKTU SEKTORIAL DEKLARATZEN DUENA, MAGNESITAS NAVARRAS SA ENPRESAK SUSTATUA. AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK BERRESTEA.

Alkateak ezagutzera eman du Nafarroako Gobernuaren 2024ko urtarrilaren 17ko Erabakiaren aurrean aurkeztutako alegazioen edukia. Erabaki horren bidez, "Artesia gako (Esteribar-Baztan, Nafarroa) magnesitak

Fernando Anbustegi, alkate: Es respetable votar, pero abusivo que en el año 2024 se diga que se impone el euskera, cuando todavía no se puede vivir 100 % en euskera, pero sí en castellano. Claro que respeto su opinión. Esta opinión coincide con la que ha venido haciendo UPN a lo largo de la historia, la de recurrir una y otra vez contra el euskera.

Pello Sarratea, Baztango Independienteak: Pregunta cada cuánto tiempo habrá comisión de euskera.

Fernando Anbustegi, alkate: Se habló de comisiones tras su aprobación en junio. Se reunirá cuando haya algún tema sobre el euskera en el Pleno.

Pello Sarratea, Baztango Independienteak: La mayoría de los clubes subvencionables dice que habla íntegramente en euskera y no es así. Van a apoyar el plan, pero les preocupa que, a veces, cuando se obliga en vez de ponerse a favor se pone en contra.

Fernando Anbustegi, alkate: En la Comisión se comentó que los clubes no hablan euskera en su totalidad, por lo que no cree que se obligue, si no, se quedarían sin dinero.

El alcalde llama a votar. El Pleno por 11 votos a favor (EH-Bildu, Zurekin-Contigo Baztan, Baztango Independienteak-Independientes de Baztan y Geroa Bai) y 1 abstención (UPN) **acuerda:**

- 1.- **Aprobar** el I Plan Estratégico del Euskera de Baztan.
- 2.- **Publicar** el presente acuerdo junto con el I Plan Estratégico del Euskera de Baztan en la página web del Ayuntamiento de Baztan.

6.- ACUERDO DEL GOBIERNO DE NAVARRA DE 17 DE ENERO DE 2024, POR EL QUE DECLARA COMO PROYECTO SECTORIAL DE INCIDENCIA SUPRAMUNICIPAL EL "PROYECTO EXPLOTACIÓN DE MAGNESITAS DE ARTESIAGA (ESTERIBAR-BAZTAN, NAVARRA)", PROMOVIDO POR MAGNESITAS NAVARRAS, SA. RATIFICACIÓN DE ALEGACIONES PRESENTADAS.

El alcalde da a conocer el contenido de las alegaciones presentadas ante el Acuerdo del Gobierno de Navarra de 17 de enero de 2024, por el que declara como proyecto sectorial de incidencia supramunicipal el "Proyecto





SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/04/30

NIF: P3105000H

Espedientea 109952M

ustiatzeko proiektua" udalez gaindiko proiektu sektorial deklaritzen da, Magnesitas Navarras SA enpresak sustatua.

Aurrekariak azalduz, arrazoiak eta ondorioak aurkezturik, Udaltzako kideek aipatutako gaiak beren iritzia eman ondoren, bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildua, eta honela laburbiltzen dena:

Pello Sarratea, Baztango Independentiak: Erdizeko alegazioak ekarri dituzte Osoko Bilkurara baina Almandozkoak ez. Hori zergatik den galdetzen du.

Fernando Anbustegi, alkatea: Aitzineko legegintzaldian ez zegoen udalean, ezin dio erantzun.

Udaltzako aldeko 10 botoekin (EH-Bildu, Zurekin-Contigo Baztan, Baztango Independentiak-Independientes de Baztan), kontrako boto 1 (Geroa Bai) eta abstentzio 1ekin (UPN) berretsi egin ditu aurkeztutako alegazioak.

7.- 87/2024 ALKATETZAREN EBAZPENEA. SINADURA ESKUORDETZEA.

Alkateak 87/2024 Ebazpenaren edukiak azaldu ditu, alkatearen eginkizunen sinadura delegazioari buruzkoa eta Udaltzako jakitun gelditu da.

8.- 88/2024 ALKATETZAREN EBAZPENEA. "ZUGARRAMURDIN EURI-JASEK KALTETUTAKO HAINBAT BIDE EGOKITZEKO ETA HOBETZEKO" PROIEKTUAN AURREIKUSITAKO LANAK BAIMENTZEA.

Alkateak 88/2024 Ebazpenaren edukiak azaldu ditu, "ZUGARRAMURDIN (NAFARROA), EURI JASEK KALTETUTAKO HAINBAT BIDE EGOKITZEKO ETA HOBETZEKO" proiektuan aurreikusitako lanak egiteko baimena ematen duena. Lan horiek Iriarteko Borda eta Oieregiko Borda bideei eragiten diete, Baztango jurisdikzioaren barruan.

Udaltzako aho batez **88/2024 Alkatetza Ebazpena berretsi du**

Explotación de magnesitas de Artesiaga (Esteribar-Baztan, Navarra)", promovido por Magnesitas Navarras, SA.

Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias de la misma, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión y que se resume en

Pello Sarratea, Baztango Independentiak: Han traído al pleno las alegaciones de Erdiz, pero las de Almandoz no. Pregunta el por qué.

Fernando Anbustegi, alcalde: En la legislatura pasada no estaba en el ayuntamiento, no puede responder.

El Pleno por 10 votos a favor (EH-Bildu, Zurekin-Contigo Baztan, Baztango Independentiak-Independientes de Baztan), 1 en contra (Geroa Bai) y 1 abstención (UPN) ratifica las alegaciones presentadas.

7.- RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA 87/2024. DELEGACIÓN DE FIRMA.

El alcalde da a conocer el contenido de la Resolución de Alcaldía 87/2024, relativa a la delegación de firma de Alcaldía. El Pleno se da por enterado.

8.- RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA 88/2024. AUTORIZACIÓN PARA TRABAJOS PREVISTOS DEL PROYECTO DE "ACONDICIONAMIENTO Y MEJORAS DE VARIOS CAMINOS DAÑADOS POR LAS LLUVIAS TORRENCIALES EN ZUGARRAMURDI".

El alcalde da a conocer el contenido de la Resolución de Alcaldía 88/2024, relativa a la autorización otorgada para la realización de los trabajos previstos en el proyecto "ACONDICIONAMIENTO Y MEJORA DE VARIOS CAMINOS DAÑADOS POR LAS LLUVIAS TORRENCIALES, EN ZUGARRAMURDI (NAVARRA)" que afectan a los caminos de Iriarteko Borda y Oieregiko Borda dentro de la jurisdicción de Baztan.

El Pleno por unanimidad ratifica la Resolución de Alcaldía 88/2024.



SINATZAILEA

Baztango Udala Idazkaria
JULEN URBIOJA LOYARTE
2024/05/02

BAZTAN

2024/04/25eko OSOKO BILKURAKO AKTA - SEFYCU 60354

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.baztan.eus/>

9tik 6 orrialdea

Egiaztapen-aseguru kodea: 7DAA AARC F7AD 9E24 MVDN



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/04/30**GALDE-ESKEAK**

Pello Sarratea, Baztango Independienteak: Galdetzen du ea ari diren prestatzen mendi eta bazkalekuak kudeatzeko planaren bat, ez bada horrela tarteka horrelako bat egitea eskatzen dute, desbrozeak, erreketak eta beharreko lanak plan batean bilduz.

Jose Luis Retegi, EH-Bildu: Planarik ez dago, lanak behararen arabera egiten dira. Udalak bere kabuz ez du erreketak aunitzik egiten, EPRIFen bidez egiten dira. Egina dagoena da Erdizeko ordenazio plana eta aurtengoa da Belatekoa. Hamar urtez Nafarroako Gobernuak teknika-erik egiten dute txosten bat zehaztuz ze mendiak aterako diren, non landatu behar den...

Lander Santamaria, Geroa Bai: Inbertsio errealen % 51 eta % 15,60 soilik egikaritzea onartezina iruditzen zaio. Aurreikusitakoa baino zortzi milioi gutxiago egikaritu dira. Proiektuak bizkortu beharko lirakeela uste du, adibidez, argiteria publikoarena.

Fernando Anbustegi, alkatea: Ogasun batzordean kontu-hartzaileak eman zuen informazioa zabaldua. Aipatzen duen kopurutik zazpi milioi eta erdi pasatu dira aurtengora eta horietatik sei dagozkio zahar etxeari.

Lander Santamaria, Geroa Bai: Kritika asko daude herria gero eta ilunago dagoela esateko. 2022tik aurrerako argiteria publikoa bizkortu egin beharko da.

Mariano Iribarren, EH-Bildu: 2022an aurkeztu zen argiteriaren proiektua. 550.000 eurokoa da eta %90a Next Generationetik heldu da. 2023ko irailean jakinarazi zioten udalari proiektua osotasunean onartzen zela, erreklamazio eta tramite burokratiko aunitzen ondotik. Next Generation proiektuak arazo bat dira. Izugarriko burokrasia eskatzen dute. Orain esleitu nahian daude, baina ziurtatu behar dute dokumentazio guzria ongi igortzen dela, bertzenaz laguntza galtzen ahal da eta proiektuaren %90a diru aunitz da. Horregatik atzeratu da proiektua.

Pello Sarratea, Baztango Independienteak: "Ayudas a la creación y mejora de infraestructuras locales ganaderas 2024" delako laguntza dagoeneko argitaratu dela dio. Zundaketei buruz galdetzen du, ea eskaera iritsi den.

Fernando Anbustegi, alkatea: Ez daki zundaketei buruz, begiratu beharko zuen.

RUEGOS Y PREGUNTAS

Pello Sarratea, Baztango Independienteak: *Pregunta si están preparando algún plan de gestión de montes y pastizales. Si no es así piden que se haga un plan de desbroces, quemas y trabajos necesarios.*

José Luis Retegi, EH-Bildu: *No hay plan, los trabajos se hacen según la necesidad. El Ayuntamiento no realiza quemas espontáneas, sino que se realizan a través de EPRIF. Lo que está hecho es el plan de ordenación de Erdiz y este año se hará el de Belate. Durante diez años técnicos del Gobierno de Navarra elaboran un informe detallando qué montes van a salir, dónde hay que plantar...*

Lander Santamaria, Geroa Bai: *La ejecución solamente del 51% y del 15,60% de las inversiones reales le parece inaceptable. Se ha ejecutado más de ocho millones por debajo de lo previsto. Cree que habría que acelerar los proyectos, como por ejemplo el del alumbrado público.*

Fernando Anbustegi, alcalde: *La amplia información fue facilitada por la interventora en la comisión de Hacienda. De la cifra que menciona han pasado a este año siete millones y medio, de los cuales seis corresponden al hogar del jubilado.*

Lander Santamaria, Geroa Bai: *Hay muchas críticas de que el pueblo cada vez está más oscuro. Habrá que acelerar la ejecución del alumbrado público que viene del año 2022.*

Mariano Iribarren, EH-Bildu: *El proyecto de alumbrado se presentó en 2022. Es de 550.000 euros y el 90 % ha llegado de la Next Generation. En septiembre de 2023 se notificó al Ayuntamiento la aprobación íntegra del proyecto tras diversas reclamaciones y trámites burocráticos. Los proyectos Next Generation son un problema. Piden una burocracia tremenda. Ahora están en proceso de adjudicación, pero tienen que asegurarse de que toda la documentación se envía correctamente y se puede perder la ayuda y el 90 % del proyecto es mucho dinero. Por eso se ha retrasado el proyecto.*

Pello Sarratea, Baztango Independienteak: *Se ha publicado la convocatoria "ayudas a la creación y mejora de infraestructuras locales ganaderas 2024".*

Pregunta por los sondeos si ha llegado la petición.
Fernando Anbustegi, alcalde: *No tiene información sobre los sondeos, tendría que mirar.*



SINATZAILEA

Baztango Udala Idazkaria
JULEN URBIOJOLA LOYARTE
2024/05/02



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/04/30

NIF: P3105000H

Espedientea 109952M

Jose Luis Retegi, EH-Bildu: Dirulaguntzari buruz, zirriborroak egiten ari dira ondotik proiektua egiteko eta laguntza eskatzeko.

Joseba Moreno, Zurekin Baztan: Berak dakienik, Arizkongo kasuan ez zen eskatu behar zundaketak egiteko eta ez zen eskatu.

Pello Sarratea, Baztango Independienteak: Bere egunean komentatu zen tartean bidea hartzen duten luberririk ezin direla eman.

Aspaldi eskatu zen 2. poligonoko 441 lur-zatira doan bidea konpontzea. Almandozko harrobiko paretak gastatu bezala bidea erori da. Ez daki enpresari edo udalari dagokion konpontzea, baina eskaera aspalditik dago pendiente.

Bertzalde aditu du brea planta martxan egoteko bide berria egitea beharrezkoa dela, Almandozko herrigunetik kanpo gelditzen dena. Dirudienek planta berriz martxan dago. Ea hori horrela den galdetzen du.

Fernando Anbustegi, alkatea: Enpresarekin bildu ziren orain dela denbora bat alternatibak bilatzeko baina ez daki martxan dagoen edo ez. Kontuan hartuko dute bidearena.

Jose Luis Retegi, EH-Bildu: Arraiozko luberrinari buruz, bidea gelditzen da lehen bezala, bi balengokin, bazterretik egina da, jendea pasatu ahal izateko.

Pello Sarratea, Baztango Independienteak: Belateko tunelei buruz, Mendiolako barrideek galdetzen dute ea lanak bukatzerakoan utziko duten buelta ematen kontrol zentroan.

Florentino Goñi, Zurekin Baztan: Idatziz ez du deus baina hitzez baietz erran diote.

Pello Sarratea, Baztango Independienteak: Galdetzen du ea maldan dauden luberriak roturatzen ahal diren.

Jose Luis Retegi, EG-Bildu: Malda eta lekuaren arabera luberri batzuk debekatzen dituzte. Luberritzeko erreglamentua eskatu diote Nafarroako Gobernuari.

Andonik eskatutako hiltegiko datuak igorri ditu Nafarroako Gobernuak. Bakarrik ardi eta behien datuak eman dituzte, 2021etik apirilaren 8a arteko datuak. Kodifikatuak daude eta lan pixkat dago informazioa egokitzen.

Andoni Irigoyen, Baztango Independienteak: Estudio bat egiteko horretaz aparte jakin behar da zer hiltzen den eta zer despiezatzan den.

Arraiozen bide partikularretan bota zen brea. Galdetzen du ea nork ordainduko duen.

José Luis Retegi, EH-Bildu: Sobre la subvención, están trabajando borradores para hacer el proyecto posterior y solicitar la ayuda.

Joseba Moreno, Zurekin Baztan: Por lo que él sabe en el caso de Arizkun no se requería la realización de sondeos ni se solicitó.

Pello Sarratea, Baztango Independienteak: En su día se comentó que no se concederían roturaciones que incluyeran un camino.

Hace tiempo que se pidió la reparación del camino que conduce a la parcela 441 del polígono 2. Conforme se han gastado las paredes de la cantera de Almandoz se ha caído el camino. No sabe si corresponde a la empresa o al ayuntamiento arreglarlo, pero la petición está pendiente desde hace tiempo. Por otra parte, para que la planta de brea esté en funcionamiento es necesario realizar un nuevo vial que quede fuera del casco urbano de Almandoz. Parece que la planta vuelve a funcionar. Pregunta si es así.

Fernando Anbustegi, alcalde: Hace un tiempo se reunieron con la empresa para buscar alternativas, pero no sabe si está en marcha. Tendrán en cuenta lo del camino.

Jose Luis Retegi, EH-Bildu: Sobre la nueva roturación de Arraioz, el camino está como antes, con dos portillos en los bordes para permitir el paso de la gente.

Pello Sarratea, Baztango Independienteak: Sobre los túneles de Belate, la vecindad de Mendiola pregunta si cuando terminen las obras van a dejar que den la vuelta en el centro de control.

Florentino Goñi, Zurekin Baztan: Por escrito no tiene nada, pero verbalmente le han dicho que sí.

Pello Sarratea, Baztango Independienteak: Pregunta si se realizar roturaciones en pendiente.

José Luis Retegi, EH-Bildu: Según la pendiente y el lugar se prohíben algunas roturaciones. Piden al Gobierno de Navarra un reglamento para las roturaciones.

El Gobierno de Navarra ha remitido los datos del matadero solicitados por Andoni. Sólo han aportado datos de ovino y vacuno, datos que van desde 2021 hasta el 8 de abril. Están codificados y hay algo de trabajo adaptando la información.

Andoni Irigoyen, Baztango Independienteak: Para hacer un estudio hay que saber qué se mata y qué se despieza.

Se ha echado brea en los caminos particulares de Arraioz. Pregunta quién va a pagar.





SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/04/30

NIF: P3105000H

Espedientea 109952M



SINATZAILEA

Baztango Udal Idazkaria
JULEN URBIOJOLA LOYARTE
2024/05/02

Fernando Anbustegi, alkatea: Udalak ordaindu du.

Andoni Irigoyen, Baztango Independienteak: Uren asuntuari buruz galdetzen du.

Mariano Iribarren, EH-Bildu: Otsailaren 27an uholde egunean Nafarroako Gobernuko Osasun Publikoko teknikaria etorri zen muestrak hartzera Amaiurrera eta Anizera. Datuak ez ziren zuzenak eta kontra-analisi bat egin zen deposituak garbitu ondotik. Bigarrenean parametroak ongi ziren. Arazoa euriagatik izan daiteke. Errekak iturriarekin nahasi eta deposituak ezin izan zuen kudeaketa egokia egin.

Andoni Irigoyen, Baztango Independienteak: Oraindik ez daude iturrien datuak. Ea hori egiteko intentzioa dagoen galdetzen du.

Mariano Iribarren, EH-Bildu: Zigakoak ez berte guziaz lokalizazio gps-a badute. Pasako dio informazioa. Zigakoak ez daude badaudelakoz hogeitau baina gehiago iturri ttiki. Dagoen arazorik handiena kudeaketa da, zati bat udalarena delakoz eta bertzea herriarena delakoz. Legeak udala behartzen du uraren kudeaketa egitera. Bere egunean erabaki zen udala arduratzea traidaz eta hortik beheiti herriari uztea. Agian momentua da gestio guziaz udalaren esku gelditzeko.

Andoni Irigoyen, Baztango Independienteak: Akordio hori Bildu eta Ezkerrak hartu zuten aitzineko legegintzaldian.

Fernando Anbustegi, alkatea: Herri guzietako ordezkariekin bildu beharko dira. Herriek kudeatzen dituzte urak, baina arazo potoloak daudelarik udalera jotzen dute laguntza eske. Afera antolatu beharko da.

Iñigo Iturralde, Zurekin Baztan: Aitzineko legegintzaldian izugarritzko lana egin zen, Bilduk, Ezkerrak, oposizioko taldeek bere neurrian eta herri guzietako alkate eta ur-komisionatuen artean ordenantza berriak egin ziren. Aurrera pauso bat izan zen. Agian orain kudeaketan bertze pausu bat eman behar bada.

Jarraian, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 19:45ean. Idazkari gisa, horren guztiaren fede ematen dut.

ALKATEA
EL ALCALDE

Fernando Anbustegi, alcalde: El Ayuntamiento ha pagado.

Andoni Irigoyen, Baztango Independienteak: Pregunta sobre el tema de las aguas.

Mariano Iribarren, EH-Bildu: El 27 de febrero el técnico de Salud Pública del Gobierno de Navarra vino a tomar muestras a Amaiur y Aniz. Los datos no eran correctos y se realizó un contra-análisis tras la limpieza de los depósitos. En la segunda los parámetros estaban bien. El problema puede ser por la lluvia. Los arroyos se mezclaron con la fuente y el depósito no pudo realizar una correcta gestión.

Andoni Irigoyen, Baztango Independienteak: Todavía no hay datos de las fuentes. Pregunta si hay intención de hacerlo.

Mariano Iribarren, EH-Bildu: Todos menos los de Ziga que tienen gps de localización. Le pasará la información. Los de Ziga no están porque hay más de veinte fuentes pequeñas. El mayor problema que hay es la gestión, porque una parte es municipal y la otra es del pueblo. La ley obliga al ayuntamiento a realizar la gestión del agua. En su día se decidió que el ayuntamiento se ocupara de la traida y que de ahí se dejara al pueblo. Tal vez sea el momento de poner toda la gestión en manos del Ayuntamiento.

Andoni Irigoyen, Baztango Independienteak: Este acuerdo fue adoptado por Bildu y Ezkerra en la legislatura anterior.

Fernando Anbustegi, alcalde: Deberán reunirse con los representantes de todos los pueblos. Los pueblos gestionan las aguas, pero cuando hay problemas importantes acuden al ayuntamiento a pedir ayuda. Habrá que organizar este asunto.

Iñigo Iturralde, Zurekin Baztan: En la legislatura anterior se hizo un gran trabajo, Bildu, Ezkerra, los grupos de la oposición en su justa medida y entre alcaldes y comisionados de agua de todos los pueblos se elaboraron nuevas ordenanzas. Fue un paso hacia adelante. Quizá ahora haya que dar otro paso en la gestión.

Seguidamente, por el Sr. alcalde se levanta la sesión, siendo las 19:45 horas, de todo lo cual, como secretario doy fe.

IDAZKARIA
EL SECRETARIO